

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

TALDE ERAGILEAREN 6. BILERAREN AKTA

Eguna: 2022-03-16

Ordua: 18:00-20:30

Lekua: Tolosako kultur etxeko Topagunea

Partaideak:

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 13 emakume.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (bi teknikari)

Gai zerrenda:

1.- SARRERA

Partaideei harrera egin ondoren, **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu, eta udaletik zenbait ohar nabarmendu ditu Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak:

- **Obraren esleipena otsailaren 18an argitaratu zen.** Martxoaren 21ean amaituko da proposamenak aurkezteko epea eta hilabete barru hasiko dira obrak. Altzarien aukeraketa zein obren jarraipena egiteko lantaldea jarriko da martxan; bi emakumek eman dut izena, hirugarren batentzat lekua dago.
- **Proiektura eskualdeko 24 herri batuko dira** azkenean. Kanpoan geratuko dira: Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur. Herri bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomikoa berriro kalkulatu da, eta 24 udalen arteko hitzarmena egingo da.
- **Dinamizatzailearen kontratazio sistema** argitu da: Tolosaldea Garatzen-en bidez egingo da. Irailerako dinamizatzailea kontratatuta egongo da.

2.- INDARKERIAREN TERMINOLOGIA

Gogoratu dugu nola Erregelamenduaren baitan *helburuak* eta *printzipio gidariak* errepasatzerakoan, Gipuzkoako Emakumeen Etxeek komunean dituzten ezaugarriak lantzeko egiten ari diren lanketa baliatu genuela. Prozesu horretan ateratako ideietako bat izan zen Emakumeen Etxeak oso baliagarriak direla **indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko**. Honen harira, indarkeria matxistaren honako **azalpena** onartzen da: "*Emakumeen aurkako indarkeria gizonen emakumeekiko duten menderatze-sistemaren adierazpen bat da. Emakumeen aurka zuzentzen da emakume izateagatik. Sexu-genero sistemaren arauetan sartzen ez diren pertsonen aurka gauzatzen diren gainerako indarkeria motak homofobia, lesbofobia eta transfobia dira*" (aurrerago azalpen honen zergatia).

GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETXEEN HELBURUAK

2. Indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko.

- Indarkeria matxistari aurre egiteko **ekipamendu estrategikoak** dira.
- **Sentsibilizazioa eta informazioaren** aldetik, indarkeria matxista zentzu zabalean lantzen da.
- Esku-hartzeari dagokionez, indarkeria sexistari **azkartasunez erantzuteko** gaitasuna dute.
- Indarkeriari aurre egiteko **tresna kolektiboak** eskaintzen dituzte.
- **Gertukoak, seguruak eta goxoak** dira Etxeak. Ez delako ziurtagiri, salaketa edo paperik behar bertara hurbiltzeko.

Eredu hau baliatuta, gure Etxeko helburuei honakoa gehitzea erabaki zen: *indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko.*

05 ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosaldean? (Helburuak)

GUTASUN BATEN PARTE SENTITZEKO

- **Gertutasuna eta konfiantza** eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko.
- **Parte** sentitzeko eta parte izateko.
- **Seguru eta babestuta** sentitzeko.
- **Libre** izateko.
- **Aisialdiko jarduerak** lantzeko, giroari arreta berezia jarrita.

AHALDUNTZEKO

- **Informazioa jasotzeko eta ikasteko.** Garapenerako gunea izateko.
- Emakumeak etengabe ahalduntzeko: **Jabetze Eskola.**
- **Feministak sortzeko laborategia** izateko, feminismoaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.

SAREAK ERAKITZEKO

- **Emakume anitzak** (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko.
- Eskualdeko **mugimendu feminista sendotzeko.**
- Eskualdeko emakume guztien **indarrak batzeko.**
- Emakume-taldeen **egoitza** izateko.

INDARKERIA MATXISTA IKUSPEGI INTEGRALETIK LANTZEKO

Baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea

ERALDAKETA SOZIALERAKO

Eraldaketa ikuspegitik jendarteko eremu guztietan **politikoki eragiteko** (behatoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza -lanak, etab.

Hau erabaki ondorengo bileran ordea, desadostasuna agertu zen Gipuzkoako Aldundiak indarkeria matxistaz egiten duen definizioarekin. Ondorioz, batetik, Aldundiaren terminologiaren inguruko dokumentazioa bidaltzea eskatu zen (aktarekin batera bidali zena), eta bestetik, azken aktan jasota zegoen indarkeriaren inguruko azalpena aldatzea proposatu zen, argudiatuta bi subjektu desberdini egiten zaiela erreferentzia azalpenean eta batean sexu-genero sistema aipatzen den bezala bestean ez dela gizonek emakumeekiko duten zapalkuntza sistema aipatzen. Hona hemen **bi azalpenak**:

Tolosako Udaleko berdintasun-technikariak nabarmendu du, **Berdintasun Saila** hasiera batean beheko solairuan egongo dela harreraren ondoan Etxeak martxa hartu arte baina gero lehen solairuan kokatuta dagoen bulegora mugituko direla.

Etxearen funtzionamendua lantzeko abiapuntu bezala udalak oinarri hau ezarri du:

- Etxea **astelehenetik ostiralera** irekita egongo da **goiz eta arratsalde**
- **Asteburuetan aurreko eraikina** erabili ahal izango da.

Etxearen funtzionamenduan sakontzeko, **lehenik banaka eta ondoren talde txikikietan** banatuta galdera hauek erantzun ditugu. Eredu gisa banatu dugu Ondarruko funtzionamenduaren araudia:

- **Publikoari irekita zein ORDUTEGI izan beharko luke zure ustez?**
- **Lokala itxita dagoenean, NORK eta NOLA eska dezake espazioa erabiltzeko baimena?**
- **NORBANAKOAK edo TALDEAK egingo dira giltzaren arduradun?**

TALDE GORRIA

- Orduategia: Astelehenetik ostiralera 10:30etatik 18:00etara. Dinamizatzailearen orduategia litzateke hau, hortik aurrera tailerrak edo bestelako ekintzak egon daitezke.
- Edozein erabiltzailek eska dezake (aurrez-aurre, online, telefonoz...), kontutan izanda erabiltzaileak definituta ditugula araudian.
- Giltzaren arduraduna eskatzailea izango da, norbanakoa zein taldea.

TALDE URDINA

- Orduategia: - Hasiera batean zabala eta malgua proposatu da: 9:00etatik 21:00etara
- Ondoren gehiago zehaztu da: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.
- Norbanakoak bere izenean baina Etxearen jarduerarekin zerikusia duen ekintza batetarako.
- Giltza emango da Etxearen programazioarekin lotutako ekintzaren bat egiteko bada.

TALDE BERDEA

- Orduategia: 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara (dinamizatzailearen 7 orduko lanaldia kontutan izanda)
- Zalantzak izan ditugu zehazteko.
- Eskatzen duenak.

Atera diren ZALANTZAK eta IDEIAK:

- Orduategia diogunean, **publikoari irekita egongo den orduategiaz** ari gara, alegia, dinamizatzaileak harrera egingo duen orduategia. Publikoari irekita ez dagoen orduetan

giltzaren bitartez erabili ahal izango da Etxea. Aldez aurretik egin beharko da eskaria horretarako. Ordutegiaz Talde Eragilean proposatutakoa kontutan izango da, edozein kasutan, dinamizatzailearen ordutegian azken hitza udalek izango dute, beraiek kontratatuko dutelako langilea

- Giltzaren bitartez Etxeko espazioa erabiltzeko **eskaerak dinamizatzaileak jasoko ditu.**
- Lokala itxita dagoenean espazioa erabiltzeko baimena edozein erabiltzailek eska dezakeela esatean diogu: Erregelamenduan zehaztuta dagoen **erabiltzaile figuran sartzen den emakume orok duela eskatzeko aukera.** Etxeko erabiltzaileen erregistroa egongo da.
- Etxearen **helburuekin bat datozen ekintzetarako** erabili ahal izango da Etxea. Erabilpena oso lotuta egongo da erregelamenduan zehaztuta dagoen bai Etxearen *helburuekin* eta baita *erabiltzaile* figurarekin ere.
- Lanaldi osoko dinamizatzailearen jardunaz gain, gogoratu da **Tolosako Udaleko berdintasun-teknikari baten lanaldi erdia Etxearen baitan sortuko den lanetara bideratuko dela.** Aurreko bileretako aktak errepasatu ondoren horrela baieztatu da, hori bai, ez dago zehaztuta zein izango diren azken honen lanak, hori Berdintasun Saitetik bideratuko da.



Erregelamenduekin amaitzeko, gogoratu dugu aurreko saioan *dinamizatzailearen funtzioak* lantzerakoan, xehetasun hau gehitzea ahaztu zitzaigula 5. funtzioan: *kudeaketa organoetako bilera-deialdiak egin, akta jaso eta bidali* (morez).

02 Dinamizatzailearen funtzioak

1. Etxera hurbiltzen diren emakumeei **harrera egin** eta **informazioa eman**. Eskabideen tramitazioa egin.
2. 28 herrietako udalekin eta talde feministekin **harremanetan egon**.
3. Eskualdeko talde feministen **mapeoa** egin.
4. Tolosako Udaleko **berdintasun-technikariarekin batera**, Etxeko lantalde, jarduera eta zerbitzuak koordinatu, dinamizatu, planifikatu (irakasleen kontratazioa, Tolosako Udalarena ez bada) eta ebaluazioa egin.
5. **Kudeaketa-organoean** parte hartu: Talde Eragilea, Koordinazio Gunea, eta Gune Zabala/Asanblada. **Kudeaketa organoetako bilera-deialdiak egin, akta jaso eta bidali.**
6. Kudeaketa -organoean hartutako **erabakiak gauzatu eta koordinatu**.
7. **Berdinbidean** parte hartu
8. **Indarkeria matxista** kasuen deribazioa egin, berdintasun-technikariarekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta.
9. **Espazioaren kudeaketa** egin: jardueretarako gelak prestatu, atea ireki eta itxi (ordutegia goiz eta arratsaldean)
10. **Programazioarako** proposamenak egin, programazioa diseinatu eta aurrera eraman.
11. **Urteko memoria** egin eta aurkeztu dagokion organoan.
12. Gipuzkoako Emakumeen Etxeen artean sortu berri den **sarean parte hartzea**.

Aho batez onartu da horrela jasotzea dinamizatzailearen funtzioak, eta Talde Eragile bezala honakoa proposatu da: **funtzio hauek lanaldi osoan egongo den dinamizatzailearekin eta Tolosako Udaleko berdintasun-technikarien lanaldi erdiarekin aurrera eramatea**, alegia, langile eta erdiren lanaldiarekin bideratzea funtzio hauek.

4.- ETXEAREN ELKARTEA

Etxearen elkartearen inguruan aurreko saioan hitz egindakoaren laburpena egin dugu. Zertarako nahi dugu Etxearen elkarte eta zein bitarteko erabiliko ditugu?

DIRULAGUNTZAK ESKATU ETA DIRUA KUDEATZEKO

Gune berri bat sortu beharrik gabe, dagoeneko kudeaketa organoetan zehaztuta dagoen **Gune Zabala edo Asanblada** izan daiteke dirua nola eta zertarako erabiliko den erabakitzeke gunea, Elkartearen Asanblada izaera emanaz. Era berean, diruaren kudeaketa lanaz arduratuko den **lantalde** bat sortu daiteke Etxean, Elkarteko presidente, idazkari eta diruzainari tramitazioekin laguntzeko.

ETXEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA IZATEKO

Ordezkarri hori **Etxeko Gune Zabala edo Asanbladan** aukeratu daiteke.

INTERLOKUZIORAKO

Bai udalekin zein Emakumeen Etxearen inguruan mugitzen diren emakumeen artean sortzen diren ideiak kudeatzeko.

BAZKIDEAK

Ez zaie baldintza berezirik eskatuko bazkide izan nahi duten emakumeei (kuotarik ez), eta bazkide zerrenda barne mailan geratuko litzateke.

Aurreko saioan aipatu zen 30.000 euroko dirulaguntza (2022 urterako 8.000 eurokoa) zegoela Etxeko elkarteari bideratzeko, honek Etxerako ekintzak aurrera eraman ditzan. Saio honetan argitu dugu Lantalde Politiko Teknikoan adostu den finantzaketa partekatua baitan 25.000 euro daudela zehaztuta zerbitzuetarako, eta beste 37.000 euro ekintza eta jardueretarako. Azken atal hau da **Elkartearen dirulaguntzarekin lotuta** dagoena. Edozein kasutan, elkarteak erabakiko du diru hori kudeatu nahi duen edo ez, eta kudeatzekotan zenbat erabiliko duen. Dirulaguntza bidez ez bada, beste bide batzuetatik bermatuko da diru hori Etxera bideratzea.

Gogoratu dugu **diruzaintza kargua hutsik** dagoela elkartean, Talde Eragilean beste boluntariorik agertu ezean Gune Zabalean proposatuko da. Era berean, azaldu da, elkartearen izaerak hasieratik hona aldaketa izan duenez, gaurko atala itxi ondoren presidentetzan zein idazkaritzan dauden emakumeei birplanteatzeko aukera emango zaiela. Biek postuan jarraitzeko asmoa azaldu dute. Hori bai, bazkideen konpromisoa beharrezkoa izango da hiru kargu horietan dauden pertsonengan ez erortzeko kudeaketa-lana.

Elkartearen martxa pixkanaka egitea ikusi da egokiena. Interlokuziorako eta Etxeko organoetan ordezkari izateko beharrezkoa izango da beraz, ezinbestekoa da elkartearen sortzea baina ondoren erabakiko da dirulaguntzak eskatuko diren ala ez (momentuko indarren arabera), eta zein jardura eraman aurrera.

5. GUNE ZABALERAKO PROPOSAMENA

Martxoaren 30eko **Gune Zabala informatiboa izango da**, hau da, urte honetan parte hartze prozesuan eztabaidatu eta erabaki diren kontuen berri emango da. Elhuyarretik Talde Eragileari egiten zaion proposamena honakoa da: aurkezpenean laguntzea aretoan jarriko ditugun 4 panel handietako azalpenak ematen. Panel bakoitzean **Talde Eragileko kide batek edo bik azalduko lukete orain arte erabaki dena**. Aurkezpena euskaraz egingo da mikrofonoekin eta momentuko itzulpen zerbitzua egongo da gaztelerara; azken hau lotuta dago udaletik.

1 panela	2 panela	3 panela	4 panela
<ul style="list-style-type: none"> • Etxearen helburuak • Printzipio gidariak • Erabiltzaileak • Eskubide + betebeharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa eredua <ul style="list-style-type: none"> ➢ Lantaldeak ➢ Talde Eragilea ➢ Koordinazio Gunea ➢ Gune Zabala/ Asanblada 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxearen jarduerak + zerbitzuak • Dinamizatzaileraren profila + funtzioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxearen funtzionamendua • Espazioaren deskribapena


Etxearen elkartearen ingurukoak zein **eskualdeko 24 herrien arteko finantzaketa partekatuari dagozkionak** ere azalduko dira. Hauek Elhuyarretik azaldu daitezke edota panel horietan txertatu eta Talde Eragileko partaideek aurkeztu ditzakete.

Gune Zabalerara bertaratzen direnek postiten bidez egin ahal izango dituzte ekarpenak, panel bakoitzean itsatsiz postita eta bertan ekarpena idatziz. Azalpenen ondoren, egin diren ekarpenen inguruko sintesi bat egingo diote talde osoari Elhuyarreko kideek eta zerbait argitu behar bada, argituko dugu.

Azkenik, **Etxearen izenaren bozketa** egingo dugu. Horretarako, WOOCCLAP programa erabiliko dugu; bakoitzak bere mugikorretik emango du botoa eta momentuan pantailan ikusiko da emaitza. Proba egin dugu Talde Eragilean, ongi atera da emaitza baina Gune Zabalean laguntza beharko dugu jendeari esku bat botatzeko eta denek botoa ematen dutela ziurtatzeko. B plana ere prest egongo da badaezpada ere.

- **Andragora**
- **Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea**
- **Tolosaldeko Emakumeen Etxea**

Proba moduan, halaber, proiektua hitz batekin definitzeko eskatu dugu. Hona hemen erantzuna:



Gune Zabalean azalpenak emateko ez da boluntariorik aurkeztu momentuan, akta bidaltzean berriro galdetuko dugu. Prest agertzen direnek Elhuyarren laguntza izango dute prestaketarako, eta honakoa bideratuko zaie:

- Gune Zabaleko bileraren Karta Didaktiko sinplifikatua bidaliko diegu beharrezko dokumentazioarekin batera. Karta Didaktikoan agertzen da bileraren antolaketa (zenbat denbora eskainiko zaion tarte bakoitzari, nor aurkeztuko duen zer, zein baliabide erabiliko den...)
- Martxoaren 30ean bertan 16:30ean geratuko gara erreposoa egiteko.

GUNE ZABALA kultur etxeko areto nagusian izango da martxoaren 30ean 18:00etatik 20:00etara.

Garrantzitsua izango da Gune Zabalerara eskualdeko ahalik eta emakume gehien gerturatzea. Beraz, zabaldu deialdia zuen taldeetan, lagunen artean eta inguruan.

7. BILERAREN BALORAZIOA

Bukatzeke, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	3,5
Gardena	3,5
Konfiantzan oinarritutakoa	3,7
Hezteko eta garatzeko balio duena	3,7
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	3,4
Parte-hartzailea	4,4

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**
 - *Hitz egiteko arazorik ez izateak.*
 - *Giroa*
 - *Ahizpatasunak*
 - *Kideekin elkartzea*
 - *Jendearen parte hartzea*
 - *Elkar entzuteak. Bakoitzak iritzia, azalpena emateak.*
 - *Kontsentsurako egon den jarrera*

- **Zerk sentiarazi zaitu deseroso?**
 - *Ez*
 - *Behin eta berriro zalantzan jartzea elkartea*
 - *Lan karga sentitzea. Ufff*
 - *Berdintasun-teknikariaren jarrera*
 - *Momentu batzutan galduta sentitu naiz*
 - *Testuan garbi esanahiak ez azaltzeak*
 - *Badirudi batzu batzuk aurre informazioa izaten dutela, gainerakoen kaltetan. Berdintasun teknikariaren jarrera eta moduak.*
 - *Ez da sakontzen gauza batzuk*

Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA
Tolosako Udaleko berdintasun teknikariaren lanaldi erdiaren ingurukoak argitu aurreko bileretako aktak begiratuta. Eginda.	Elhuyar eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria
Gune Zabaleko aurkezpenerako boluntarioak behar dira (4-8 pertsona artean) baita izenaren bozketa WOOC LAP bidez egiteko jendeari laguntza eskaintzeko ere.	Talde Eragileko partaideak
Gune Zabaleko aurkezpena prestatzeko dokumentazioa eta Karta Didaktikoa (bileraren funtzionamendua azalduz) bidali boluntarioei	Elhuyar
Gune Zabalerako deialdia zabaldu	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak: sare sozialak, pantailak, emaila. • Elhuyar: emailaz gonbidapena bidaliz. • Talde Eragileko partaideak: taldeetan, lagunei eta ingurukoei.



Eskerrik asko!